# ZUMAIA




## TURISMO BULEGOA / OFICINA DE TURISMO

Kantauri plaza 13 • 943 14 33 96 • Fax: 943 86 15 31
turismoa@zumaia.eus • **www.zumaia.eus**

- **Neguko ordutegia (16/09-14/06):**
  Asteartetik larunbatera: 10.00-14.00 / 16.00-19.00
  Igandetan: 10:00-14:00. Astelehena: itxita.
- **Udako Ordutegia (15/06-15/09):** Egunero: 10.00-14.00 / 16.00-20.00

- ***Horario de invierno (16/09-14/06):***
  *De martes a sábado: 10:00-14:00 / 16:00-19:00*
  *Domingos: 10:00-14:00. Lunes: cerrado.*
- ***Horario de verano (15/06-15/09):*** *Todos los días: 10:00-14:00 / 16:00-20:00*

Bisita gidatuak / *Visitas guiadas:* 943 143 396 • **www.geoparkea.eus**

## BESTE PUNTU INTERESGARRI BATZUK
## OTROS PUNTOS DE INTERÉS

14. **UDALETXEA** / **AYUNTAMIENTO**
15. **FAROA** / **FARO**
16. **ITZURUN HONDARTZA** / **PLAYA DE ITZURUN**
17. **SANTIAGO HONDARTZA ETA DUNAK** / **PLAYA Y DUNAS DE SANTIAGO**
18. **KULTUR ETXEA** / **CASA DE CULTURA**
19. **PADURA** / **MARISMA**

Done Jakue Bidea / Camino de Santiago

GR-121

Bidegorri / Carril bicicletas

### IKURRAK - SÍMBOLOS

| | |
|---|---|
| Hotela / Hotel | Turismo Bulegoa / Oficina de Turismo |
| Pentsioa / Pensión | Informazio turistikoa / Información turística |
| Apartamentuak / Apartamentos | Industri-ondarea / Patrimonio industrial |
| Landetxea / Casa Rural | Udaltzaingoa / Policía Municipal |
| Kanpina / Camping | Taxiak / Taxis |
| Nekazalturismoa / Agroturismo | Parking |
| Museoa / Museo | Autobus geltokia / Parada autobús |
| Posta / Correos | Tren geltokia / Estación Tren |
| Ontziraleku / Embarcadero | Gasolindegia / Gasolinera |
| Igogailua / Ascensor | Estankoa / Estanco |
| Begiratokia / Mirador | |
| Farmazia / Farmacia | |

## SAN PEDRO ELIZA • IGLESIA DE SAN PEDRO



Ziurrenik, 1347an Zumaiako hiribildua sortu ondoren eraiki zen, nahiz eta, antza, Santa Maria Monasterioarekin lotura baduen, horri buruzko lehen aipamenak XIII. mendekoak dira.

Gotorleku soil baten itxura du kanpoko aldetik, eta baliteke piraten garaietan funtzio hori bete izana. Habearte bakarreko eliza da, eta bertan Juan de Antxietak XVI. mendean en amaieran egindako erretaula erromanista zoragarria ikus daiteke.

Aipagarriak dira, halaber, alboetan dituen kaperak. XVI. mendean Ingalaterra, Flandes eta Bretainiarekin itsas merkataritzan jardun zuten merkatari-familia boteretsuenak ziren.

Probablemente fue levantada tras la fundación de la villa en 1347, aunque sus orígenes se encuentran ligados al antiguo monasterio de Santa María, ya citado en el siglo XIII.

El exterior tiene el aspecto austero de una fortaleza y en su interior, de una sola nave, destaca el maravilloso retablo romanista de finales del siglo XVI, obra de Juan de Antxieta.

También destacan las capillas laterales, pertenecientes éstas a poderosas familias de mercaderes locales que tuvieron gran relevancia en el comercio marítimo con Inglaterra, Flandes y Bretaña durante el siglo XVI.

## ZUMAIA JAUREGIA • PALACIO ZUMAIA



Zumaiako alde zaharraren erdigunean dago, parrokia-elizatik oso gertu.

Garai batean, Zumaia-Ganboa familia boteretsuaren etxea izan zen. Familia Gipuzkoako Ahaide Nagusien 24 etxeetako bat zen eta herriko aberatsenetako bat.

XV. mendean eraiki zutenetik aldaketa handiak izan dituen arren, oraindik garai hartako zenbait elementu ikus daitezke bertan: aintzinako sarrera izan zeneko arku zorrotza, leiho gingilduna eta eraikinaren azpiko aldean dauden hareharri landuak.

Se encuentra en el corazón del casco antiguo, muy próxima a la iglesia parroquial.

En el pasado fue casa solar de la poderosa familia "Zumaia Ganboa", una de las veinticuatro casas de Parientes Mayores de Guipúzcoa, y una de las más adineradas de la villa. Aunque actualmente está muy transformada, todavía muestra algunos elementos originales de la primitiva construcción del siglo XV, como son el arco apuntado de la antigua entrada, una ventana lobulada y los sillares de arenisca de la parte inferior del edificio.

## OLAZABAL JAUREGI-ETXEA • CASA-PALACIO DE OLAZABAL



Juan Olazabalek eraiki zuen. Olazabal Felipe IV.aren idazkaria eta Inkisizioaren Kontseilu Goreneko kontulari nagusia izan zen.

XVII. mendeko eraikin eder honen elementu deigarriena harehari landuz eraikitako etxearen aurrealdea da. Hor du sarrera, eta solairu nagusian, burdina forjatuzko bi balkoi ditu. Erdiko balkoiaren alde banatan, olazabaldarren leinuko bi armarri eder daude, kar eharrizkoak biak. Aurrealdearen erremate gisa, teilatu-hegal zabala du, garaiko gustuen arabera apaindua.

Fue construida por Juan de Olazábal, secretario del rey Felipe IV y contador general del Consejo Supremo de la Inquisición.

Lo más llamativo de este bello edificio del siglo XVII es su fachada principal, toda ella construida en sillería de arenisca. En ella se disponen la entrada y los balcones de hierro forjado de la planta noble. Jalonando el balcón central, dos bellos escudos del linaje de los Olazábal, tallados en piedra caliza. La fachada está rematada con un amplio alero, decorado al gusto de la época.




zumaia

# ZUMAIA

## Hirigune Historikoa
## Casco Histórico

## SAN JOSE KOMENTUA • CONVENTO DE SAN JOSÉ



1609an sortu zuen komentua Francisca Labayenek, bere dorretxean bertan.

Dirudienez, Santa Teresaren erreformei jarraitu zien Euskal Herriko Karmeldarren lehen komentuetako bat izan zen.

Eraikina erreformak proposatutako soiltasunaren erakusgarri da. XX. mendearen hasieran aurrealdean erantsitako elementuek soilik ematen diote monumentu ukitua.

Fue fundado en 1609 por Francisca Labayen, cediendo para tal fin su propia casa-torre.

Al parecer, fue uno de los primeros conventos de carmelitas en el País Vasco que siguieron las reformas de Santa Teresa. El edificio refleja las normas de sobriedad propuestas por la reforma, y solamente los elementos de la portada, añadidos a principios del siglo XX, aportan algo de monumentalidad.

## UBILLOS JAUREGIA • PALACIO DE UBILLOS



Ubillos familiarena izan zen. XVI. mendea baino lehen, jauregia dorre bat besterik ez zen, gaur egungo aurrealdearen ezkerrekoa. XVI. mendean, jatorrizko dorreari gorputz nagusia erantsi zioten; patio karratu bat, Errenazimentuko gustuen araberakoa; eskuineko dorrea; sarrera zabala, eta balkoiak. Berrikuntza horiekin guztiekin, garai batean izan zuen defentsarako eraikin militarraren itxura galdu zuen jauregiak.

Gaur egun, Zumaiako Musika Eskola dago bertan.

Perteneció a la familia Ubillos. Antes del siglo XVI contaba tan sólo con una torre, la situada en el lado izquierdo de su fachada. Fue en el siglo XVI cuando a la torre primitiva se le añadieron el cuerpo central, con un patio cuadrado muy al gusto renacentista, además de la torre derecha, una amplia entrada y los balcones, perdiendo así el aspecto defensivo-militar que tuvo en el pasado.

En la actualidad, el edificio alberga la Escuela de Música de Zumaia.

## ARRITOKIETAKO ANDRE MARI • ANDRA MARI DE ARRITOKIETA



Herriaren goiko aldean dago, gain batean. Bertan, Zumaiako zaindaria den Andre Mariaren irudia dago. Irudia XVII. mendeko erretaula batean ikus liteke. Erretaularen azpiko aldean, zalantzarik gabe, XVI. mendekoa den triptiko hispano-flandestarra dago.

Triptiko honen erdian Pietatea agertzen da eta alboetan San Joan Bataiatzailea eta beharbada San Frantzisko. Gaixo kutsakorrentzat sortutako ospitale zaharra ermitaren alboan zegoen garai batean. Bertan egon zen San Frantzisko Borja entzutetsua.

Está situada en un alto, sobre la población. Su interior alberga la imagen de Andra Mari, del siglo XVI, patrona de Zumaia. La imagen está protegida por un retablo del siglo XVII que, sin embargo, contiene en su parte inferior un tríptico hispano-flamenco del siglo XVI.

En el centro de este tríptico aparece la Piedad y a los lados, San Juan Bautista y posiblemente San Francisco. El antiguo hospital, situado en el pasado junto a la ermita y fundado para enfermos contagiosos, tuvo su paciente más ilustre en la persona de San Francisco de Borja.

## SAN TELMO ERMITA • ERMITA DE SAN TELMO



Itzurun hondartzaren gaineko labarren ertzean dago. Ermitari buruzko lehen lekukotza idatzia 1.540koa da. Ermitari izena ematen dion santua marinelen zaindaria izaki, ez da harritzekoa XVII. mendetik aurrera ermita hau San Telmo Marinelen Kofradiaren egoitza izatea.

Bere arkitektura herri estilokoa da. Ermitaren barnean rokoko estiloko erretaula nabarmentzen da. Erretaula egurrezkoa da, polikromiarik eta urre-kolorerik gabea. Erretaula Santiagoren eta Santa Klararen irudiek mugatzen dute. Irudi hauek herriak bi santu hauen izeneko ermitak saldu zituenean egin ziren.

Está ubicada al borde de los acantilados, sobre la playa de Itzurun. La primera referencia escrita sobre ella data del año 1.540. Su santo titular es patrono de marineros, razón por la que desde el siglo XVII, esta ermita fue sede de la Cofradía de Mareantes de San Telmo.

Su arquitectura es de estilo popular. En su interior destaca el retablo rococó del siglo XVIII realizado en madera, sin policromía ni dorados. Jalonando el retablo se sitúan las imágenes de Santiago y Santa Clara; ambas fueron realizadas cuando la villa vendió las ermitas bajo la advocación de ambos santos.

## FORONDA JAUREGIA • PALACIO DE FORONDA



XX. mendearen hasieran eraiki zen Forondako Markesaren udako bizitoki izango zena.

Juan Jose Gurrutxagak, Eibarko udal-arkitektoak, diseinatu zuen. Estilo eklektikoak erdi aroko gazteluen itxura ematen dio jauregiari. Eraikin hau XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran nobleziak eta burgesia berriak gogoko zuen estiloaren adibide garbia da.

Fue construido a principios del siglo XX como residencia veraniega del Marqués de Foronda.

Diseñado por el arquitecto municipal de Eibar, Juan José Gurruchaga, su estilo ecléctico recuerda en las formas la arquitectura de los castillos medievales. Este palacete es fiel reflejo del gusto imperante entre la nobleza y la alta burguesía a finales del siglo XIX y principios del XX.

## BEOBIDE MUSEOA • MUSEO BEOBIDE



Kresala izeneko etxean dago, Zumaiako eskultoreak bere lantegia izan zuen tokian. Ignacio Zuloagaren laguna izan zen Beobide. 1891n jaiotako eskultore honek bere lanaren zati handi bat erlijiozko-eskulturari eta ohitura-errealismoari eskaini zien.

Museoan zenbait zirriborro daude bai eta askotariko materialekin egindako obrak ere, gehienak ordea, egurrezkoak dira. Obra hauen artean, amaitu gabeko Kristo bat ikus liteke. Gainera, Beobidek ber e lanetarako erabili zituen lanabesak ere ikusgai daude museoan.

Está situado en la villa denominada Kresala, lugar donde el escultor zumaiarra tuvo su taller. Nacido en 1891, amigo personal de Ignacio Zuloaga, Julio Beobide dedicó gran parte de su obra a la escultura religiosa y al realismo costumbrista.

El museo guarda diversos bocetos y obras realizadas en distintos materiales, principalmente en madera, entre ellos un Cristo inacabado. También muestra las herramientas que el artista utilizó en la creación de sus obras.

## EUSKAL KOSTALDEKO UNESCO GEOPARKEA ETA FLYSCHA
## GEOPARQUE UNESCO DE LA COSTA VASCA Y EL FLYSCH




Euskal Kostaldeko Geoparkea MUTRIKU, DEBA eta ZUMAIAko udalerriek osatzen dute eta Kantauri itsasoaren eta euskal mendien artean dago kokatua.

Geologia da paisaia honetako egiazko protagonista. Geoparkeko 13 kilometroko itsaslabarretan haitzgeruzek osatutako formazio ikusgarria gordetzen da, Flysch izenekoa. Entziklopedia baten antzera, Lurraren historiaren 60 milioi urte baino gehiago irakur daitezke geruzaz geruza, horien artean dinosauroen desagerpenari buruzko informazioa.

El Geoparque de la Costa Vasca, conformado por los municipios de MUTRIKU, DEBA y ZUMAIA, es un pequeño territorio encajado entre el mar Cantábrico y las montañas vascas.

La Geología es la verdadera protagonista. Los 13 kilómetros de acantilados del Geoparque guardan una espectacular formación de rocas llamadas Flysch que, a modo de una gran enciclopedia, nos muestran más de 60 millones de años de la historia de la Tierra, incluída la gran extinción de los dinosaurios.

## "ALGORRI" INTERPRETAZIO ZENTROA
## CENTRO DE INTERPRETACIÓN "ALGORRI"



Eraikin modernista hau, 1912an eraiki zuten udal-hiltegi izateko asmoz. Gaur egun "Algorri" Ezagutza Zentroa dago bertan.

Zentro honetan Zumaiako inguru geologikoa ezagutu liteke: mundu osoan ezagunak diren flysch formazioak, marearteko zabalgunea eta bertako labar ikusgarriak. Modu osagarrian, Zumaiako Turismo Bulegoarekin elkarlanean, Zentroak gaiarekin lotura duten beste hainbat jarduera eskaintzen ditu: bisita eta azalpen geologikoak, itsasontzian irteerak eta labarretan trekking egiteko aukera.

Tel.: 943 143 100 • www.algorri.eu

Este edificio de estilo modernista, fue construido en 1912 para cumplir la función de matadero municipal. En la actualidad, es sede del Centro de Interpretación "Algorri".

La visita a este centro representa un paseo por el marco geológico de Zumaia, mundialmente conocido por sus espectaculares formaciones de flysch, su rasa mareal y sus vistosos acantilados. Como complemento, el Centro ofrece, en colaboración con la Oficina de Turismo, una serie de actividades directamente relacionadas con el tema, como visitas y explicaciones geológicas, salidas en barco y trekking por los acantilados.

## Z KULTUR GUNEA
## Z ESPACIO CULTURAL



Ignacio Zuloagak sortu zuen Kulturgunea (1910-20), XV. mendeko ermitaren eta Santiago bideko erromesen ostatuaren hondarrak zaharberrituta. Eraikin bat erantsi zion multzoari, estudio-tailer gisa erabili zuena.

2012. urteaz geroztik Z Kultur Guneak erakusketa iraunkorra du: euskal margolariaren obra sorta bat, haren bilduma historikoa (XIII-XX mende bitartekoak) eta nazioarteko artista modernoen eta garaikide ezagunen obra esanguratsuak ditu, besteak beste Picasso, Miró eta Tàpies.

Espacio Cultural restaurado (1910-20) por Ignacio Zuloaga, sobre las ruinas de una ermita (S. XV) y de una hospedería de peregrinos del Camino de Santiago. Completó el conjunto con un edificio anexo que utilizó como estudio-taller.

Desde 2012 Z Espacio Cultural expone permanentemente una selección de obras del pintor vasco, de su colección histórica (S. XIII-XX) y destacadas obras de artistas modernos y contemporáneos reconocidos internacionalmente (Picasso, Miró y Tàpies, entre otros).

Tel.: 677 078 445 • www.espaciozuloaga.com

## SAN TELMO MARINELEN KOFRADIA
## COFRADÍA DE MAREANTES SAN TELMO



Garai bateko marinelen kofradiaren egoitza zen eraikinean, arrainen salmenta egiteko erabiltzen zen makina bitxia dago ikusgai, hain zuzen ere etnografikoki balio handikoa eta Euskal Herrian bakarra dena.

Bisita gidatuen bidez eta aurrez ordua eskatuta ikus daiteke.

En el edificio que antiguamente acogió la sede de la Cofradía de pescadores, se puede visitar la sala de ventas y la máquina utilizada antaño para la venta de pescado, de gran valor etnográfico y único ejemplar que queda en el País Vasco.

A lo largo del año se abre la sala con cita previa.

Tel.: 943 143 396 • turismoa@zumaia.eus

## ZERBITZU TURISTIKOAK • SERVICIOS TURÍSTICOS

### OSTATUAK/ALOJAMIENTOS

**HOTELAK-HOTELES**

H1 - FLYSCH
San Telmo kalea 2 - 943 24 58 70
www.hotelflysch.com

H2 - TALASOTERAPIA ZELAI
Itzurun hondartza - 943 865 100
www.talasoterapiazelai.com

H3 - ZUMAIA*
Alai auzategia 13 - 943 143 441
www.zumaiahotela.com

**PENTSIOAK-PENSIONES**

- GOIKO*
Erribera 9
943 860 078 - 696 584 804
www.goiko-pentsioa.com

**APARTAMENTUAK-APARTAMENTOS**

A - TOMÁS
Eusebio Gurrutxaga plaza 12
943 861 916
www.apartamentos-tomas.com

**NEKAZALTURISMOAK-AGROTURISMOS**

1 - KARAKAS ZAHAR
Artadi auzoa 26
943 861 736 - 639 676 444
www.nekatur.net/karakas

2 - SANTA KLARA
Santa Klara baserria
943 860 531 - 639 879 611
www.agroturismosantaklara.com

**LANDETXEAK-CASAS RURALES**

CR 1 - JESUSKOA
Oikia auzoa
943 143 209 - 635 758 849
www.jesuskoa.eus

CR 2 - LANDARTE
Artadi auzoa 1
943 865 358 - www.landarte.net

**KANPINA-CAMPING**

- ZUMAIA
Basusta bidea 16 - 943 860 475
info@campingzumaia.com
www.campingzumaia.com

### INDUSTRI ONDAREA
### PATRIMONIO INDUSTRIAL

www.ziiz.eus

### MUSEOAK/MUSEOS

**ALGORRI, INTERPRETAZIO ZENTROA**
**CENTRO DE INTERPRETACIÓN ALGORRI**
Juan Belmonte 21
943 143 100 - www.algorri.eus

**Z KULTUR GUNEA**
**Z ESPACIO CULTURAL**
Santiago auzoa
677 078 445 - www.espaciozuloaga.com

### GARRAIOAK/TRANSPORTES

- 900 300 340
www.lurraldebus.eus
- Taxiak-Taxis: 943 861 360